# Nire Euskal Etxea

Saio honetan Guggenheim museoa eta Maizpide euskaltegia bisitatuko ditugu. Gainera, Anak eta Michaelek euskal etxeaz hitz egingo dute. Azken lanean zure euskal etxea deskribatzeko eskatuko dugu. Edukiak errepasatuko ditugu eta Bi berri ikasi: Agintera eta UKAN aditza.

Dans cette unité, nous visiterons le musée Guggenheim et l'euskaltegi Maizpide. Ana et Michael décriront leur euskal etxea. Nous ferons de même lors de l'exercice final. Au passage, nous en profiterons pour revoir quelques éléments et pour en apprendre d'autres : l'impératif et le verbe UKAN.



## entzumena

Ana eta Michael igogailuan elkartu dira berriro. Entzun elkarrizketa eta adierazi esaldiak egia ala gezurra diren.
Ana et Michael se retrouvent dans l'ascenseur. Écoutez leur conversation et dites si les phrases sont vraies ou fausses.

## Igogailuan, berriro



**Egia ala gezurra?**

- Anak memoria txarra du.
- Argentinan euskaldun asko dago.
- Michaelek ez du Euskal Etxerik.
- Mendozan ez dute dantza-talderik.
- Mendozan euskara klaseak badituzte.
- Mendozako irakaslea oso jatorra da.
- Mendozako Euskal Etxean ez dute kintxorik.

# Ukan aditza

Ce verbe signifie *avoir*. Il s'utilise également en fonction transitive du verbe *izan*. Plus tard, nous l'étudierons en tant que verbe auxiliaire.

| Singulier | | | Pluriel | | |
|---|---|---|---|---|---|
| NIK<br>HIK<br>HARK<br>GUK<br>ZUK<br>ZUEK<br>HAIEK | DUT<br>DUK/N*<br>DU<br>DUGU<br>DUZU<br>DUZUE<br>DUTE | j'ai<br>tu as<br>il a<br>nous avons<br>tu as, vous avez<br>vous avez<br>ils ont | NIK<br>HIK<br>HARK<br>GUK<br>ZUK<br>ZUEK<br>HAIEK | DITUT<br>DITUK/N*<br>DITU<br>DITUGU<br>DITUZU<br>DITUZUE<br>DITUZTE | j'ai<br>tu as<br>il a<br>nous avons<br>tu as, vous avez<br>vous avez<br>ils ont |
| | | une seule chose | | | plusieurs choses |

**ADIBIDEAK. Exemples**

| | |
|---|---|
| Anak memoria txarra du.<br>Nik liburua dut<br>Nik bi liburuak ditut.<br>Zuk alaba bat duzu.<br>Zuk bi alaba dituzu.<br>Hark kotxea du.<br>Hark kotxeak ditu. | Ana a une mauvaise mémoire.<br>J'ai un livre / le livre.<br>J'ai deux livres.<br>Tu as une fille.<br>Tu as deux filles.<br>Elle a une voiture.<br>Elle a deux voitures. |

Jarri aditza
Complétez les phrases avec le verbe correspondant

- Nik liburua _______.
- Zuk diskoak _________.
- Guk etxe polita __________.
- Lagunek liburua __________.
- Nik sudur handia ____________.
- Arantxak begi politak __________.
- Guk tripa handia __________.
- Zuek anaia ____________.
- Zuek anaiak ____________.
- Koldok oso umore ona _________.

- Nik oso jenio txarra ________.
- Zuk belarritakoa __________.
- Zuk belarritakoak ________.
- Marianek oso hanka luzeak ________.
- Robertok oso gorputz polita ________.
- Hark liburua _________.
- Hark liburuak ________.
- Haiek liburua __________.
- Haiek liburuak_____________.
- Aitorrek bista ona _______.
- Zuk bista txarra _________.
- Guk kotxe ona __________.
- Zuek oso patin politak __________.
- Guk liburua etxean ________.
- Zuek gozokiak ______poltsikoan.



# Le sujet “nork”

Le sujet des verbes transitifs prend toujours le morphème –K. C'est un point très important à assimiler.
Ainsi, en basque, nous avons deux types de sujet : NOR pour les verbes intransitifs et NORK pour les transitifs.

| Sujet NOR | Sujet NORK |
|---|---|
| Ni ikaslea naiz.<br>Zu Argentinakoa zara.<br>Koldo langilea da.<br>Gu jatorrak gara.<br>Zuek gazteak zarete.<br>Haiek Donostiakoak dira. | Nik liburua dut.<br>Zuk etxea duzu. Zuk etxeak dituzu.<br>Koldok autoa du.<br>Guk alaba dugu. Guk alabak ditugu.<br>Zuek etxea duzue.<br>Haiek motorra dute. |

# NOR deklinabidea

| Singularra- A | | Plurala- AK | | Mugagabea- indéterminé- ϕ | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Laguna**<br>**Neska**<br>**Emakumea** | l'ami<br>la fille<br>la femme | **Lagunak**<br>**Neskak**<br>**Emakumeak** | les amis<br>les filles<br>les femmes | **Koldo**<br>**Amaia**<br>**Josu** | **Luis**<br>**Ramon**<br>**Ines** |

# NORK deklinabidea

| Singularra- AK | | Plurala- EK | | Mugagabea- (e)K indéterminé- | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lagunak**<br>**Neskak**<br>**Emakumeak** | l'ami<br>la fille<br>la femme | **Lagunek**<br>**Neskek**<br>**Emakumeek** | les amis<br>les filles<br>les femmes | **Koldok**<br>**Amaiak**<br>**Josuk** | **Luisek**<br>**Ramonek**<br>**Inesek** |

Au pluriel, les mots se terminant par E doublent le E :

**emakume+ek. ➲ .emakumeek**

Pour les mots se terminant par A, le A disparaît remplacé par un E :

**neska+ek. ➲ .neskek**

**ADIBIDEA. Exemple**



| | |
|---|---|
| Neskak laguna du. | La fille a une amie. |
| Neskak lagunak ditu. | La fille a des amies. |
| Neskek laguna dute. | Les filles ont une amie. |
| Neskek lagunak dituzte. | Les filles ont des amies. |

# Erakusleak. Démonstratifs

| | | |
|---|---|---|
| **HONEK** ce, celui celle...-ci | **HORREK** | **HARK** ce, celui, celle...-là |
| **HAUEK** ces, ceux, celles...-ci | **HORIEK** | **HAIEK** ces, ceux, celles...-là |

Neska HAU Arantxa da.
Neska HAUEK Arantxa eta Miren dira.

Neska HONEK laguna du.
Neska HAUEK lagunak dituzte.

Deklinatu hitzak
Déclinez les mots en fonction du sujet NOR ou NORK.

## Nor ala nork?

Euskal Etxe_____ handia da.

Euskal Etxe____ frontoia du.

Lagun____ liburua du.

Emakume____ jatorrak dira.

Mutil____ umore ona dute.

Lagun_____ oso jatorra da.

Lagun_______ New Yorken bizi dira.

Lagun_____ kotxe gorri_____ dute.

Lagun___ kotxe gorri____ditu.

Lagun____ kotxe on_____ dituzte.

Lagun____ kotxe on_____ du.

Ikasle_____ oso jator_____ dira.

Gu____ oso jatorrak gara.

Gu____ umore ona dugu.

Etxe_____ politak dira.

Etxe______ itxura ona dute.

Koldo____ jatorra da.

Koldo_____ bi seme ditu.

Marian_____ Irungoa da.

Marian______ berrogei urte ditu.

Etxe urdin_____ oso handi______ da.








## irakurmena

Irakurri testua eta aukeratu erantzun egokia.
Lisez le texte et choisissez la réponse appropriée.



# Maizpide euskaltegia

Maizpide barnetegia Lazkaon dago. Maizpiden ikasleak barnetegian bizi dira. Ikasle gehienak Euskal Herrikoak dira: Gasteizkoak, Iruñekoak, Irungoak, Donostiakoak.

Irakasleak Goierrikoak dira: Ordiziakoak, Lazkaokoak, Beasaingoak, Ataungoak...

Goierri Gipuzkoan dago. Goierri Gipuzkoako bailara da. Goierriko herriak ez dira oso handiak eta oso hurbil daude. Hemen distantziak txikiak dira.

Lazkao ez da oso handia. 5.000 pertsona bizi dira, baina oso ondo komunikatuta dago. Donostia 30 minutura dago, kotxez.

Lazkaon denetik dago: eskola, igerilekua, kiroldegia, liburutegia, futbol zelaia.

Lazkaon jendea oso lasai bizi da. Zarata gutxi dago eta oso herri lasaia da.

Maizpide barnetegiak hiru pisu ditu. Beheko pisuan idazkaritza, liburutegia, telebista-gela, sukaldea eta jangela daude. Konputagailu gela eta joku-gelak ere bai. Baina, Maizpiden ez dago tabernarik, kafe-makina bat bakarrik.

Lehenengo pisuan, ikasgelak eta irakasle-gelak daude. Lau irakasle gela daude eta 11 ikasgela. Gainera, telebista-gela eta zinema daude.

Bigarren pisuan logelak daude eta komunak, noski. Ez dago logela indibidualik. 2, 3 edo 4 pertsonek lo egin behar dute. Maizpide eraikuntza modernoa da, baina ez dago wifirik oraindik.

Euskal Herrian beste bi barnetegi daue, biak Bizkaian, Foruan eta Zornotzan.

Etorri nahi duzu?

## GALDERAK

1.- Non dago Maizpide?
   a) Maizpide Lazkaon dago.
   b) Maizpiden Lazkaoen dago.

2.- Non bizi dira ikasleak?
   a) Ikasleak barnetegian bizi dira.
   b) Ikasleak etxean bizi dira.

3.- Nongoak dira irakasleak?
   a) Irakasleak Lazkaokoak dira.
   b) Irakasleak Goierrikoak dira.

4.- Non dago Goierri?
   a) Goierri Gipuzkoan dago.
   b) Goirri Bailaran dago.

5.- Zenbat pisu ditu Maizpidek?
   a) Maizpidek bi pisu ditu.
   b) Maizpidek hiru pisu ditu.

6.- Beheko pisuan badago ikasgelarik?
   a) Bai, badago.
   b) Ez, ez dago ikasgelarik.

7.- Non dago jangela?
   a) Beheko pisuan dago jangela.
   b) Jangela bigarren pisuan dago.

8.- Maizpiden badago tabernarik?
   a) Ez, ez dago tabernarik.
   b) Bai, badago.

9.- Non dago telebista-gela?
   a) Gela lehenengo pisuan dago.
   b) Gela hirugarren pisuan dago.

10.- Maizpideko irakasleek badute gelarik?
   a) Ez, ez dute gelarik.
   b) Bai, badute.

11.- Non daude logelak?
   a) Logelak bigarren pisuan daude.
   b) Logelak lehenengo pisuan daude.

12.- Badago logela indibidualik?
   a) Bai, badago.
   b) Ez, ez dago logela indibidualik.

13.- Euskal Herrian badago beste barnetegirik?
   a) Ez, ez dago.
   b) Bai, badago.



## entzumena

# Hoteleko harreran



Esan Euskalduna hotelak gauza hauek dituen.
Dites-nous si l'hôtel Euskalduna propose les services suivants.

**Badu ala ez du?**

- Badago wifirik?
- Konputagailu-gelarik badago lehenengo pisuan?
- Badute inpresorarik?
- Badago tabernarik?
- Eta diskotekarik?
- Badute suiterik laugarren pisuan?
- Suiteek badute jakuzirik?
- Badute menu bejetarianorik?
- Badago buffetik?
- Hoteletik hurbil badago turismo-bulegorik?



## Azalpena

## BA
## Le morphème affirmatif “BA”

Le morphème ba- précède le verbe et renforce l'affirmation.

| | |
|---|---|
| **Baduzu dirurik?** | **Avez-vous de l’argent ?** |
| **Bai, badut** | **Oui, j’en ai.** |
| **Baduzu dirurik etxean?** | **Avez-vous de l’argent chez vous?** |
| **Bai, badut dirua etxean.** | **Oui, j’ai de l’argent chez moi** |

N’oubliez pas que l’élément-clé de la phrase précède toujours le verbe. La particule ba- étant considéré comme un élément-clé, le verbe doit être placé en tête de phrase.

## ® IK PARTITIBOA. Le partitif

Ce suffixe a différentes fonctions.
Nous verrons tout d’abord son emploi dans les questions et les négations.

| | |
|---|---|
| **Ba al da urik?** | **Y a-t-il de l’eau ?** |
| **Ez, ez dago urik** | **Non, il n’y a pas d’eau** |
| **Bai, badago ura** | **Oui, il y a de l’eau** |

Si le mot se termine par une voyelle, on intercale un –r-.

| | |
|---|---|
| **Baduzu surik?** | **Avez-vous du feu ?** |
| **Ez, ez dut surik** | **Non, je n’ai pas de feu** |

Le partitif a un sens indéterminé (une quantité indéterminée).

| | |
|---|---|
| **Liburua ez dut etxean.** | **Je n'ai pas le livre** *(un livre en particulier)* **chez moi.** |
| **Ez dut libururik etxean** | **Chez moi, je n’ai pas de livre** *ou* **Chez moi, je n’ai aucun livre** |

Même si en français, cela peut correspondre à un pluriel, en basque, le verbe est toujours au singulier.

Je n’ai pas de livres = **ez dut liburirik**
Nous n’avons pas de problèmes = **ez dugu arazorik**

| | |
|---|---|
| • **Baduzu surik?** | Avez-vous du feu ? |
| • **Ez, ez daukat surik.** | Non, je n’ai pas de feu. |
| • **Non duzu liburua?** | Où as-tu le livre ? |
| • **Baduzu libururik?** | As-tu des livres ? |
| • **Guk ez dugu lanik.** | Nous n’avons pas de travail. |
| • **Ez dago jenderik.** | Il n’y a personne. |
| • **Jendea ez dago pozik.** | Les gens ne sont pas contents. |

Itzuli esaldi hauek
Traduisez ces phrases. Utilisez BA ou (R)IK selon besoin.

- Je n’ai pas honte ***(lotsa)***.
- Avez-vous du papier ***(paper)*** ?
- Ici, il n’y a personne ***(jende)***.
- Nous n’avons pas cours ***(klase)***.
- Avez-vous un appartement ***(pisu)*** à Vitoria ?
- Non, nous n’avons pas d’appartement à Vitoria.
- Avez-vous de l’argent ***(diru)*** ?
- Non, je n’ai pas d’argent.
- Excuse-moi, mais je n’ai pas l’argent.
- Avez-vous des enfants ***(seme-alaba)*** ?
- Non, je n’ai pas d’enfants ***(seme)***.
- J’ai trois filles ***(alaba)***, mais je n’ai pas de fils ***(seme)***.
- Êtes-vous pressés ***(presa)*** ?
- Non, nous ne sommes pas pressés.
- Nous n’avons pas de fronton.

Ikusi irudiak eta galderei erantzun
Observez les images et répondez aux questions

## HIRIA


1 metroa


2 museoa


3 eliza


4 mezkita


5 katedrala


6 etxe-orratzak


7 etxe txikiak


8 errepide handia


9 bidea


10 plaza handia


11 futbol estadioa


12 ibaia


13 zubi handia


14 zubi txikia


15 hondartza


16 kaia

### Erantzun galderei

- Badago metrorik Gasteizen?
- Bilbok badauka museorik?
- Donostian badago mezkitarik?
- Buenos Airesen badago katedralik?
- New Yorken badago etxe-orratzik?
- Euskal Herriko errepideak handiak dira?
- Euskal Herrian distantziak handiak dira? Eta Estatu Batuetan?
- Moskuk badauka plaza handirik?
- Donostian badago futbol-estadiorik?
- Gasteizen badago zubi handirik?
- Munichen badago hondartzarik?
- Donibane Lohitzunen badago kairik?






Michaelek berriro hitz egin du hoteleko harrerakoarekin. Irakurri elkarrizketa eta erantzun galderei.

Michael a de nouveau parlé avec le réceptionniste de l'hôtel. Lisez la conversation et choisissez l'option correcte.

## Guggenheim-en, zer?

- Kaixo berriro.
- Kaixo, egun on! Berriro hemen?
- Bai, galdera bat dut. Guggenheim hurbil dago, ezta? Polita da?
- Bai, hurbil dago, oso hurbil, eta oso polita da, oso berezia. Eraikuntza modernoa da. Arkitektura abanguardista du. Forma bihurriak ditu, kanpotik titanioa du eta beira.
- A! gauza disdiratsu, brillante, hori da titanioa?
- Bai, polita, ezta? Frank Gheryk egin du.
- Arkitekto hori ez da Euskal Herrikoa, ezta?
- Ez, ez da Euskal Herrikoa… Estatu Batuetakoa da.
- Eta ba al dago tabernarik?
- Bai, badago. Bat sarreran eta beste bat barruan. Begira, bi sarrera ditu. Jatetxea, liburu-denda eta administrazioa sarreran daude. Barruan beste jatetxe bat dago eta entzungela. Entzungelak 300 eserleku ditu.
- Handia da, ezta? Zenbat metro ditu?
- 24.000m $m^2$ ditu.
- Ene! Zenbat!
- Bai, eta 11.000 erakusketak, esposizioak, egiteko dira.
- Badu galeria arrarorik, berezirik?
- Bai. 20 galeria ditu. Batzuk klasikoak dira, baina beste batzuk oso irregularrak dira, forma berezia dute.
- Eta zenbat pisu ditu?
- Hiru, hiru pisu ditu.
- Eta gidarik badago?



- Bai, eta gida-digitalak ere bai.
- Gida-digitalak? Zer da hori?
- Telefono antzeko gauza bat; gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dago.
- Aizu, eta euskaraz ez dago gidarik?
- Bai, noski, badago. Nola ez!
- Aizu, eta txakurra?
- A! Txakurra Pupy da, oso polita da.
- Bai, polita da, bai. Zorte ona duzue, turista asko dago Bilbon Guggenheimengatik.
- Bai, propaganda ona da. James Bond ere egon da.
- James Bond? 007?
- Bai, “El mundu nunca es suficiente” filman. Ikusi nahi duzu? Nik kopia bat dut. Hasiera Bilbon grabatuta dago.
- Ez, gaur ez. Museoa ikusi nahi dut. Eskerrik asko!
- Agur!

Aukeratu erantzun egokia. Choisissez la bonne réponse.

1.- Guggenheim
a) Ez dago hurbil.
b) Hurbil dago.

2.- Guggenheimek
a) Arkitektura modernoa du.
b) Arkitektura klasikoa du.

Titanioa
a) Barruan dago.
b) Disdiratsua da.

Frank Ghery
a) Ez da Euskal Herrian bizi.
b) Ez da arkitektua.

Guggenheimen
a) Ez dago tabernarik sarreran.
b) Gela bereziak daude.

Guggenheimen
a) Ez dago gela irregularrik.
b) 20 galeria daude.

Guggenheimek
a) Hiru pisu ditu, baina ez du gidarik.
b) Hiru pisu ditu eta bi sarrera.

Guggenheim
a) Museoan ez dago gidarik euskaraz.
b) Jende askok ikusi nahi du.

"El mundu nunca es suficiente" filmaren hasiera
a) Bilbon grabatuta dago.
b) Ez dago Bilbon grabatuta.





## entzumena

Entzun grabazioa eta erantzun galderei.
Écouter l'enregistrement et répondez aux questions.

Nola eman ditu porteroak azalpenak, aginduak?
Comment a-t-il expliqué le chemin à Michael ?
Quels sont les verbes utilisés pour donner des ordres ?

Irakurri testua eta aurkitu agintera.
Lisez la transcription et déduisez la formation de l'impératif.

- *Barkatu berriro.*
- *Eta Guggemheinera joateko?*
- *Tira, oso erraza da. Irten hoteletik eta ezkerrera. Bi kale pasa eta etorbide, abenida, bat dago. Hartu hori. Lehenengo semaforoan hartu ezkerrera. Hor ikusiko duzu Pupy.*
- *Eta sarrerak?*
- *Pupy pasa eta atzean dago ate nagusia. Sartu eta ezkerrera joan. Beno, lasai, nik bi sarrera ditut. Hartu.*
- *Ez, ez,*
- *Bai, hartu eta eraman.*
- *Ondo da, eskerrik asko.*
- *Ez horregatik.*

# AGINTERA. L'impératif.

Même si le basque possède des verbes auxiliaires pour appliquer les différentes formes d'impératif, on utilise souvent le participe du verbe lorsqu'il s'agit d'un ordre direct et à la deuxième personne du singulier. Il suffit de placer le verbe plus loin dans la phrase, et de ne pas ajouter de verbe auxiliaire.

| | |
|---|---|
| **Zu Parisen zaude.** | Tu es à Paris |
| **Egon Parisen.** | Sois à Paris ! |
| **Zu etxera joan zara.** | Tu es rentré à la maison |
| **Joan etxera.** | Rentre à la maison ! |

## EZEZKOA. Négations

| | |
|---|---|
| **Ez egon Parisen** | Ne sois pas à Paris ! |
| **Ez joan etxera** | Ne rentre pas à la maison ! |

ITZULI ESALDI HAUEK. Traduisez ces phrases.

- Ignaki, réveille toi !
- Lave-toi la figure !
- Ana, assieds-toi sur la chaise !
- Habille-toi et sort tout de suite !
- Rentre à la maison et n’en sort pas !
- Prends rapidement ton petit déjeuner !
- Manolo, ne bois pas !
- Achète des pommes !
- Lis ça !
- Ne joue pas de txistu !
- Ne conduis pas (en étant) ivre (mozkortuta) !




Jarri taldeka eta eman aginduak elkarri.
Donnez des ordres à vos camarades et assurez-vous qu’ils les exécutent.

## Seinaleak

Seinaleak ikusi eta saiatu izena osatzen. Ezin baduzu, begiratu LETRA ZOPAN.
Essayez de compléter le nom des panneaux de signalisation. Si vous avez des problèmes, aidez-vous des MOTS MÊLÉS.




Aisa

## Letra-zopa

Aurkitu irudiko hitzak letra-zopan.
Trouvez les noms des panneaux de signalisation dans ces mots mêlés.

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| L | I | B | U | R | U | T | E | G | I | A | B | A | J |
| X | E | R | T | Z | A | N | T | Z | A | T | Z | O | U |
| K | E | S | A | P | A | R | K | A | L | E | K | U | A |
| N | S | W | A | T | K | L | C | X | E | I | N | Ñ | O |
| Q | K | X | E | B | T | L | M | N | O | A | G | U | R |
| V | O | R | U | D | A | L | E | T | X | E | A | A | T |
| E | L | K | X | H | O | N | D | A | R | T | Z | A | E |
| M | A | T | Y | U | B | L | O | I | A | M | E | B | M |
| C | T | A | C | V | L | O | X | E | O | K | H | N | T |
| P | O | S | T | E | T | X | E | A | R | B | E | A | O |
| O | S | P | I | T | A | L | E | A | C | F | X | H | A |
| A | V | A | H | E | I | K | P | A | D | H | F | K | E |
| V | U | D | A | L | E | T | X | E | A | A | D | A | D |
| S | U | H | I | L | T | Z | A | I | L | E | A | K | E |

## NON DAGO KIROLDEGIA?

Carmenek eta Raulek kiroldegira joan nahi dute. Nondik joan behar dute?

Entzun grabazioa eta ibilbidea marraztu
Écoutez l'enregistrement et signalez la route que Carmen et Raul devront suivre. Les deux personnes se trouvent au niveau du point rouge.




**BINAKA**

Jarri binaka, hartu zuen herriko mapa eta antzeko elkarrizketa bat egin. Helburua: Puntu sekretua non dagoen asmatzea.



## Testua osatu

Osatu testua hitz hauekin.
Complétez ce texte en utilisant le vocabulaire ci-dessous.

**Da Dago Ditu Du Du**
**Dute Frontoirik Ondo**

# Anaren Euskal Etxea




Anaren Euskal Etxea Mendozan _____. Euskal Etxea txikia eta berria ____, baina bazkide asko ditu, 120. Etxeak bi pisu ____. Lehenengoan, taberna, bulegoak eta gela handi bat daude. Gela honek 50 m2 ditu eta dantza taldeak han entseatzen _____. Bigarren pisuan hiru gela ditu. Han ikasten _____ euskara ikasleek. Gelan bi konputagailu ditugu kurtso remotorako.
Euskal Etxeak ez du _______, baina kintxo ederra ____. Han oso _____ pasatzen dute.

Deskribapen gehiago irakurri nahi baduzu, joan Nazioarteko Euskaldunak blogerera.
Si vous désirez lire d'autres descriptions, visitez le blog Nazioarteko Euskaldunak.

## Esaldiak osatu

## Hau da, hau!

**ERAKUSLEAK. Les démonstratifs.**

JARRI ERAKUSLE EGOKIA. FIJATU ESALDIA SINGULARRA ALA PLURALA DEN.
Écrivez l'adjectif démonstratif correspondant. Regardez si la phrase est au singulier ou au pluriel.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **HAU**<br>**HAUEK** | **1** | **HORI**<br>**HORIEK** | **2** | **HURA**<br>**HAIEK** | **3** |
| **Honek**<br>**Hauek** | | **Horrek**<br>**Horiek** | | **Hark**<br>**Haiek** | |

**Adibidez:**

Mutil ____ (1) oso jatorra da.

Mutil **HAU** oso jatorra da.

- Neska ________ (3) Bilbokoak dira.
- Etxe ________ (2) bi pisu ditu.
- Etxe ________ (2) txikia da.
- Emakume _________ (3) ez dira hemen bizi.
- Emakume _________ (3) ez dute dirurik.

- Gela _____ (2) oso polita da.
- Gela _____ (2) bi leiho ditu.
- Mutil _____ (1) oso ederra da.
- Mutil _____ (1) begi ederrak ditu.
- Lagun _____ (2) badute tabakorik?
- Lagun _____ (2) nongoak dira?

- Gizon _____ (1) ez da hemen bizi.
- Gizon _____ (1) badu dirurik?
- Etxe ______ (3) ez du igogailurik.
- Etxe ______(3) berria da.
- Hotel _____ (2) oso famatua da.
- Hotel _____ (3) hiru izar ditu.

- ______ (1) Patxi da.
- ______ (1) bi seme-alaba ditu.
- Ikasle _____ (3) Txilekoak dira.
- Ikasle _____ (3) umore ona dute.
- Etxe ____ (2) lau pisu ditu.
- Etxe ____(2) ez du igogailurik.
- Etxe ____ (2) zaharra da.



# etxerako lana

## DEKLINATU. Déclinez les mots

Gu Argentina_____ bizi gara.
Gu oso ikasle on______ gara.
Lagun_____ etxe ona dute.
Ni Alemania_____ naiz. (nongoa)
Lagun____ nota onak ditu.
Gizon____ hondartzan dago.
Bilbo Bizkaia___ dago.
Guk ez dugu boligrafo______.
Lagun____ ez dute bibote______.
Liburu____ ez dago eskolan.
Ikasle____ oso langileak dira.
Ikasle_____ oso nota onak ditu.
Etxe___ zuri___ da.

## JARRI ADITZA. Écrivez les verbes

Erroma( Roma) Italian _______.
Gu Santurtzin bizi _______.
Guk ez _______autorik.
Zuek oso langileak __________.
Zuek ez _______motorik.
Baserritarrek baserri polita _________.
Baserritarrak umore ona _______.
Baserritarra oso jatorra ______.
Ni hor bizi _________.
Nik etxe polita ________.
Zu _____baina zuk ________.
Arantxa oso nekatuta ________.

## JARRI EZEZKA. Mettez les phrases affirmatives à la forme négative.

Marco oso jatorra da.
Zuek Argentinakoak zarete.
Guk dirua dugu etxean.
Lagunak Hernanin bizi dira.
Zuk etxe handia duzu.
Mikel hemen dago.
Gaur eguraldi ona dago.
Irakasleek gaur jai dute.
Arantxa bihurria da eta umore ona du.
Iñakik bibote luzea du.

## ITZULI ESALDI HAUEK. Traduisez les phrases.

Je n’ai pas d’argent.
Vous vivez à Orio. Orio est situé au bord de la plage.
Orio se trouve en Gipuzkoa.
Benito Lertxundi est d’Orio.
Benito Lertxundi a de jolies chansons.
Markel n’est pas ici.
As-tu le temps ?
Non, je n’ai pas le temps. J’ai beaucoup de travail.

## UKAN aditza

Robertok oso gorputz polita _________.
Hark liburua __________.
Hark liburuak _________.
Haiek liburua ___________.
Haiek liburuak______________.
Aitorrek bista ona ________.
Zuk bista txarra __________.
Guk auto ona ___________.
Zuek oso patin politak ___________.
Guk liburua etxean _________.
Zuek gozokiak _______poltsikoan.

Deskribatu orain zure Euskal Etxea. Décrivez rapidement votre Euskal Etxea.



**BADAKIZU**

¿Sabías que..?
Do you know?
Weisst du
Saviez—vous que?
Vôce sabia?

# Euskal Erakunde publikoak eta euskara

## EUSKO JAURLARITZA (1936)

Eusko Jaurlaritza Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako gobernua da (Eusko Autonomia Erkidegoa).

Nafarroan Nafarroako gobernua dago eta Iparraldean Akitaniako gobernua dago.

Eusko Jaurlaritzak Gasteizen du egoitza. Lehendakaria Gasteizen bizi da, Ajuria-Enea Jauregian.

## HABE (1981)

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea da.

Erakunde ofiziala da. Urte hauetan material asko egin du eta euskaltegi eta ikasle guztien ardura du.

Europako Erreferentzia Markoan hartu du oinarri eta euskara mundura zabaldu nahi du.

## ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA (2008)

Erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura bultzatu nahi du erakunde honek eta hori kanpora proiektatu nahi du. Euskara gure altxorra da. Etxepare institutuak gure irudi positiboa, nortasuna eta identitatea islatu nahi du gure mugetatik kanpo.

## EUSKALTZAINDIA (1919)

Euskara hizkuntzaren erakunde ofiziala da. Orain arte euskararen normalkuntzarako arauak egin ditu.

Euskararen Akademia da. Euskara ez da hizkuntza indoeuroparra. Euskal hiztunak Euskal Herrian bizi dira gehienak.

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (1980)

Unibertsitate berri honek “eman eta zabal ezazu” du lema, Iparragirreren hitz famatuak.

50.000 ikasle/irakasle/langile ditu eta hiru kanpus ditu: Donostian, Bilbon eta Gasteizen. 31 fakultate ditu.

Bere logoa Eduardo Txillida eskultorearena da.

# Material osagarria

## Autoeskolan

Entzun grabazioa eta gogoratu nola esaten den: derrière, devant, à gauche…






| ATZEAN | ESKUINEAN | EZKERREAN | AURREAN |
|---|---|---|---|